- La retirada del ala este del bloque respecto al lindero con la parcela de Obispo Etxeandia número 3.
- El reajuste del sótano en el encuentro entre Obispo Etxeandia y Artibai, para adaptarlo constructivamente a la planta edificada.

*Tercero:* Remitir este acuerdo, junto con un ejemplar de la modificación (documentación administrativa y técnica), a la Diputación Foral de Bizkaia, para su depósito en el Registro Administrativo del Planeamiento Urbanístico.

*Cuarto:* Publicar en el «Boletín Oficial de Bizkaia» el contenido íntegro del acuerdo de aprobación definitiva, junto con las normas

arauekin batera, erregistroan sartu ondoren, aurreko atalean aginduenez. Era berean, behin betiko onespeneraren erabakia lurraldean gehien hedatzen diren egunkarietan argitaratuko da.

*Bosgarrena:* Erabaki hau eta bere espedientea (dokumentazio administratiboa eta teknikoa) EAEko Lurralde Antolaketako Batzordeari bidaliko zaizkio, artxibatze, behar bezala diligenziaturik, bai paperean bai formatu informatikoan.

*Seigarrena:* Alkatetza-Udalburutzari ahalmena emango zaio erabaki hauek burutzeko behar diren ebazpenak eman ditzan.»

#### EBAZPENAREN AURKA JOTZEKO BIDEAK

Ebazpen honen aurka administrazioarekiko liskar-auzibideko errekurtsua sar dezakezu Euskal Herriko Justiziako Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko auzitarako epaitegian bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi edo argitaratu ondoko egunetik aurrera zenbatuta, Administrazioarekiko Liskar-auzibideak arautzen dituen 1998ko uztailaren 13ko 29 legeko 10. eta 46.4 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Hori guztiori, zeure eskubideen alde egiteko egoki deritezun egintzak edo errekurtsuak aurkeztu ahal izanagatik ere.

Getxon, 2009ko uztailaren 2an.—Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak Arloko Zinegotzi Arduraduna, alkatearen 2007ko ekainaren 22ko 4.242 Dekretuaren bidez eskuordetuta, Joseba Arregui

(II-5848)

#### IRAGARKIA

Getxoko Udal-Batzar Osoak 2009ko ekainaren 26an egindako bilkura arruntera, besteak beste, erabakitakoa dela honako hau:

«*Lehenengoa:* Getxo udalerriko Hiri Antolaketako Plan Orokorren aldaketa zehatza behin betiko batean onestea, Areetako Merkaturako eta Hirigintza Arauen 7.4.6 artikulurako (“gutxieneko altuerak”).»

Espediente honen xedea Areetako merkatuaren eta ondoko bidearen (Ogoño kalea) eraikuntza azpiko eta lurpeko erabilera eta okupazioa aldatzea da. Era berean, ekipamendu erabileretarako eta zerbitzu publikoetarako eraikinetan solairuen gutxieneko altuerak berriro planteatu nahi dira, Plan Orokorreko Hirigintzako Arauen 7.4.6 artikuluan atal berria sartuz. Honela idatziko litzateke:

«7.4.6. artikulua. Gutxieneko altuerak:

Pisuen gutxieneko altuerak, etxebizitzetan naiz beheko solairuetako lokaletan eta sotoetan, hauek izango dira:

Aparkalekuetarako sotoa: 2,30 m.

Beheko solairuak: 3,25 m.

Solairu altuak: 2,60 m.

Atikoa: 2,50 m.

Altuera horiek libreak izango dira, amaitutako zoritik sabaira neurtuak, zolaketaekin eta zarpiatuarekin.

Artikulu hau ez dute bete beharko ekipamendu edota zerbitzu publiko erabilera daukaten eraikinek. Horietan, 3,20 metroko altuerak baimenduko dira, zoritik sabaira neurtuta, zolaketaekin eta zarpiatuarekin amaituak.

Beheko solairuaren gutxieneko altuera jaitxi daiteke, apainketen bidez, baldin eta haren punturik ez badago lurretik 2,80 metro baino gutxiagora.

Beheko solairuko sabaia ezin da egon sestratik 3 metro baino urrunago. Neurketa hau 7.1.8 artikuluan aipatzen diren puntu berean eta modu berean egingo da.

Altuera hau Santa Ana barrualdean eta kanpoaldean bakarrik gainditu daiteke, zona horietan maila freatikoren altuerak baldintzatu egiten duelako sotoak garaje erabilerarako sortzea.»

urbanísticas afectadas, una vez producido el depósito al que se refiere el apartado precedente. Publicar, asimismo, el acuerdo de aprobación definitiva en los diarios de mayor difusión en el territorio.

*Quinto:* Remitir este acuerdo, junto con su expediente (documentación administrativa y técnica), a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco para su archivo, todo ello debidamente diligenciado y tanto en formato papel como en formato informático.

*Sexto:* Facultar a la Alcaldía-Presidencia para dictar cuantas resoluciones resulten precisas para la ejecución de estos acuerdos.»

#### MEDIOS DE IMPUGNACIÓN

Contra este acuerdo, podrá Vd. interponer en el plazo de dos meses, a contar desde el día siguiente al de la notificación o publicación del acuerdo, recurso contencioso administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, a tenor de lo establecido en los artículos 10 y 46.4 de la Ley 29/1998 de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa.

Todo ello sin perjuicio de cualquier otra acción o recurso que estimare oportuno interponer para la mejor defensa de sus derechos.

En Getxo, a 2 de julio de 2009.—El Concejal Responsable del Área de Urbanismo, Obras y Servicios, en virtud de Delegación otorgada por Decreto de la Alcaldía número 4.242, de fecha 22 de junio de 2007, Joseba Arregui

(II-5848)

#### ANUNCIO

El Pleno del Ilustre Ayuntamiento de Getxo, en sesión ordinaria celebrada el día 26 de junio de 2009, adoptó entre otros, el siguiente acuerdo :

«*Primero:* Aprobar, con carácter definitivo, la Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana del municipio de Getxo para el Mercado de Las Arenas y el artículo 7.4.6 de sus Normas Urbanísticas (“Alturas mínimas”).»

Es objeto de este expediente la modificación del uso y ocupación en subsuelo o bajo rasante de la edificación correspondiente al mercado de Las Arenas y vialidad contigua, calle Ogoño, así como la reconsideración de las alturas mínimas de pisos en edificios destinados a usos equipamentales y de servicios públicos incorporando un nuevo apartado en el artículo 7.4.6 de las Normas Urbanísticas del Plan General, que quedaría redactado en los siguientes términos:

«Artículo 7.4.6. Alturas mínimas:

Las alturas mínimas de pisos, tanto en viviendas como en locales de plantas bajas y sótanos, serán las siguientes:

Sótano de aparcamiento: 2,30 mts.

Plantas bajas: 3,25 mts.

Plantas altas: 2,60 mts.

Ático: 2,50 mts.

Estas alturas serán libres, medidas de suelo a techo terminados con pavimento y raseo.

Se exceptúan del cumplimiento de este artículo los edificios cuyo uso sea el de equipamiento y/o servicio público, donde se permitirán alturas de pisos de 3,20 metros, medidas de suelo a techo terminados con pavimento y raseo.

Podrá rebajarse la altura mínima de la planta baja mediante decoraciones, siempre que ningún punto de ésta se halle a menos de 2,80 mts. de distancia del suelo.

El techo de la planta baja no podrá estar a más de 3,40 mts. de la rasante. Esta medición se hará en el mismo punto y de la misma forma que se señala en el artículo 7.1.8.

Únicamente podrá superarse esta altura en las áreas de Santa Ana Exterior e Interior debido al condicionamiento que en estas zonas supone la altura del nivel freático para la obtención de sótanos destinados a garaje.»



**Bigarrena:** Erabaki hau, aldaketaren ale batekin batera (dokumentazio administratiboa eta teknikoa), bidaliko zaio Bizkaiko Foru Aldundiari, hiri plangintzako administrazio erregistroan sar dezan.

**Hirugarrena:** Behin betiko onespeneren erabakiaren eduki osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, ukitutako hirigintza arauekin batera, erregistroan sartu ondoren, aurreko atalean agindu denez. Era berean, behin betiko onespeneren erabakia lurraldean gehien hedatzen diren egunkarietan argitaratuko da.

**Laugarrena:** Erabaki hau eta bere espedientea (dokumentazio administratiboa eta teknikoa) EAeko Lurralde Antolaketako Batzordeari bidaliko zaizkio, artxibatzeke, behar bezala diligentziaturik, bai paperean bai formatu informatikoan.

**Bosgarrena:** Alkatetza-Udalburutzari ahalmena emango zaio erabaki hauek burutzeko behar diren ebazpenak eman ditzan.»

#### EBAZPENAREN AURKA JOTZEKO BIDEAK

Ebazpen honen aurka administrazioarekiko liskar-auzibideko errekurtsua sar dezakezu Euskal Herriko Justiziako Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko auzitarako epaitegian bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi edo argitaratu ondoko egunetik aurrera zenbatuta, Administrazioarekiko Liskar-auzibideak arautzen dituen 1998ko uztailaren 13ko 29 legeko 10. eta 46.4 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Hori guztiari, zeure eskubideen alde egiteko egoki deritzezun egintzak edo errekurtsuak aurkeztu ahal izanagatik ere.

Getxon, 2009ko uztailaren 2an.—Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak Arloko Zinegotzi Arduraduna, alkatearen 2007ko ekainaren 22ko 4.242 Dekretuaren bidez eskuordetuta, Joseba Arregui

(II-5849)

#### IRAGARKIA

Getxoko Udal-Batzar Osoak 2009ko ekainaren 26an egindako bilkura arruntera, besteak beste, erabakitakoa dela honako hau:

«**Lehenengoa:** Behin betiko onetsiko da Getxo udalerrriaren Hiri Antolaketako Plan Orokorraren aldaketa puntuala, Zugazarte etorbideko 32.eko Bake Eder finkarako. 5. eta 6. planoetan zuzenketak egingo dira, idatzizko dokumentazioko determinazioei egokitzeko.

Aldaketa honek inposatutako eraikuntza honen diseinua dakar:

#### Eraikin diseinatua:

*Eraikin zk.:* 1\*.

*Solairu kop.:* 3.

*Gehienezko altuera:* 12 m\*\*.

*Azalera eraikigarria:* 4.267 m<sup>2</sup>.

\* Sestrak eta lerrokadurak erantsitako planoetan adierazitakoak dira.

\*\* Teilatuko forjatuaren barruko aldean.

**Bigarrena:** Erabaki hau, aldaketaren ale batekin batera (dokumentazio administratiboa eta teknikoa), bidaliko zaio Bizkaiko Foru Aldundiari, hiri plangintzako administrazio erregistroan sar dezan.

**Hirugarrena:** Behin betiko onespeneren erabakiaren eduki osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, ukitutako hirigintza arauekin batera, erregistroan sartu ondoren, aurreko atalean agindu denez. Era berean, behin betiko onespeneren erabakia lurraldean gehien hedatzen diren egunkarietan argitaratuko da.

**Laugarrena:** Erabaki hau eta bere espedientea (dokumentazio administratiboa eta teknikoa) EAeko Lurralde Antolaketako Batzordeari bidaliko zaizkio, artxibatzeke, behar bezala diligentziaturik, bai paperean bai formatu informatikoan.

**Segundo:** Remitir este acuerdo, junto con un ejemplar de la modificación (documentación administrativa y técnica), a la Diputación Foral de Bizkaia, para su depósito en el Registro Administrativo del Planeamiento Urbanístico.

**Tercero:** Publicar en el Boletín Oficial de Bizkaia el contenido íntegro del acuerdo de aprobación definitiva, junto con las normas urbanísticas afectadas, una vez producido el depósito al que se refiere el apartado precedente. Publicar, asimismo, el acuerdo de aprobación definitiva en los diarios de mayor difusión en el territorio.

**Cuarto:** Remitir este acuerdo, junto con su expediente (documentación administrativa y técnica), a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco para su archivo, todo ello debidamente diligenciado y tanto en formato papel como en formato informático.

**Quinto:** Facultar a la Alcaldía-Presidencia para dictar cuantas resoluciones resulten precisas para la ejecución de estos acuerdos.»

#### MEDIOS DE IMPUGNACIÓN

Contra este acuerdo, podrá Vd. interponer en el plazo de dos meses, a contar desde el día siguiente al de la notificación o publicación del acuerdo, recurso contencioso administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, a tenor de lo establecido en los artículos 10 y 46.4 de la Ley 29/1998 de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa.

Todo ello sin perjuicio de cualquier otra acción o recurso que estimare oportuno interponer para la mejor defensa de sus derechos.

En Getxo, a 2 de julio de 2009.—El Concejal Responsable del Área de Urbanismo, Obras y Servicios, en virtud de Delegación otorgada por Decreto de la Alcaldía número 4.242, de fecha 22 de junio de 2007, Joseba Arregui

(II-5849)

#### ANUNCIO

El Pleno del Ilustre Ayuntamiento de Getxo, en sesión ordinaria celebrada el día 26 de junio de 2009, adoptó entre otros, el siguiente acuerdo:

«**Primero:** Aprobar, con carácter definitivo, la Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana del municipio de Getxo para la finca Bake Eder, sita en el número 32 de la Avda. Zugazarte, con la corrección de los planos número 5 y 6 que se adaptan a las determinaciones de la documentación escrita.

La presente Modificación comporta el diseño de la siguiente edificación impuesta:

#### Edificación diseñada:

*Edificio n.º:* 1\*.

*Nº de plantas:* 3.

*Altura máxima:* 12 m\*\*.

*Superficie edificable:* 4.267 m<sup>2</sup>.

\* Las alineaciones y rasantes son las señaladas en los planos adjuntos.

\*\* A cara inferior del forjado de cubierta.

**Segundo:** Remitir este acuerdo, junto con un ejemplar de la modificación (documentación administrativa y técnica), a la Diputación Foral de Bizkaia, para su depósito en el Registro Administrativo del Planeamiento Urbanístico.

**Tercero:** Publicar en el «Boletín Oficial de Bizkaia» el contenido íntegro del acuerdo de aprobación definitiva, junto con las normas urbanísticas afectadas, una vez producido el depósito al que se refiere el apartado precedente. Publicar, asimismo, el acuerdo de aprobación definitiva en los diarios de mayor difusión en el territorio.

**Cuarto:** Remitir este acuerdo, junto con su expediente (documentación administrativa y técnica), a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco para su archivo, todo ello debidamente diligenciado y tanto en formato papel como en formato informático.

*Bosgarrena:* Alkatetza-Udalburutzari ahalmena emango zaio erabaki hauek burutzeko behar diren ebazpenak eman ditzan.»

### Ebazpenaren aurka jotzeko bideak

Ebazpen honen aurka administrazioarekiko liskar-auzibideko errekurtsua sar dezakezu Euskal Herriko Justiziako Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko auzitarako epaitegian bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi edo argitaratu ondoko egunetik aurrera zenbatuta, Administrazioarekiko Liskar-auzibideak arautzen dituen 1998ko uztailaren 13ko 29 legeko 10. eta 46.4 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Hori guztiari, zeure eskubideen alde egiteko egoki deritzezun egintzak edo errekurtsuak aurkeztu ahal izanagatik ere.

Getxon, 2009ko uztailaren 2an.—Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak Arloko Zinegotzi Arduraduna, alkatearen 2007ko ekainaren 22ko 4.242 Dekretuaren bidez eskuordetuta, Joseba Arregui

(II-5850)

### IRAGARKIA

Getxoko Udal-Batzar Osoak 2009ko ekainaren 26an egindako bilkura arruntera, besteak beste, erabakitakoa dela honako hau:

«*Lehenengoa:* Erabilera publikoko espazioetan barrak eta terrazak jartzea arautzen duen udal ordenantza berria hasiera batean onetsi zuen 2009-03-27ko osoko bilkurako 47. erabakiaren aurka egindako iradokizunak ebaztea, aurreko oinarrietan azaldutako moduetan.

Horrela, Getxo Enpresa eta Merkataritzak egindakoa zati batez onetsiko da. 11.2 artikulua, beraz, kalearen gutxieneko zabalera 6 metrotan finkatuko du, eta ez 8tan. Gainerako puntuak ezetsiko dira.

*Bigarrena:* Behin betiko onetsiko da Erabilera publikoko espazioetan barrak eta terrazak jartzea arautzen duen udal ordenantza berria, aurreko atalean aipatutako iradokizunen ebazpenaren ondorioz egindako zuzenketekin, eta altueraren irizpidea berriro aztertuz.

*Hirugarrena:* Erabaki hau eta ordenantzaren testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira. Iradokizunak egin zituztenei jakinarazi behar zaie.

Laugarrena: Beren-beregi agerrarazten da onetsi den ordenantza honek, indarrean sartzen denetik aurrera, 2005-03-23ko osoko bilkuran behin betiko onetsi zena erabat ordezkatzeko duela, eta azken ordenantza hori indargabetuta geratuko dela.»

### ERABILERA PUBLIKOKO ESPAZIOETAN TERRAZA ETA BARRAK JARTZEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA

#### SARRERA

Ordenantza berri honen helburua, gure auzoetako hiri-eremuan jarduera handiagoaren garapena ekarriko duten ekimen zehatzak sustatzeko helburuaren barnean kokatzen da, dinamismo ekonomiko handiagoari bidea emateko, eta aldi berean, espazio publikoak eta bere hirigintza modu harmoniko eta orekatuan antolatzen saiatuz.

Labur esanda, herritarrentzako modu antolatuan Getxo atsegín, praktikoa eta erosoagoa eskaintzea da, neguan ere gure auzoen gozamen, aprobetxamendu eta bizkortzea bilatuz, ostalaritzako terraza estalien ezarri udalerriko espazio estrategikoetan.

Ordenantza berri honekin, beste neurri batzuekin batera, gure hiriguneak suspertzen lagundu nahi da, espazio publikoen aprobetxamendu iraunkorra bilatzeko joera duten neurriak ezarri.

Laburpen gisa, helburua oinezkoentzako espazioa eta espazio publikoa banatzea, instalazioen estetika beren kokalekuen inguru-

*Quinto:* Facultar a la Alcaldía-Presidencia para dictar cuantas resoluciones resulten precisas para la ejecución de estos acuerdos.»

### Medios de impugnación

Contra este acuerdo, podrá Vd. interponer en el plazo de dos meses, a contar desde el día siguiente al de la notificación o publicación del acuerdo, recurso contencioso administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, a tenor de lo establecido en los artículos 10 y 46.4 de la Ley 29/1998 de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa.

Todo ello sin perjuicio de cualquier otra acción o recurso que estimare oportuno interponer para la mejor defensa de sus derechos.

En Getxo, a 2 de julio de 2009.—El Concejal Responsable del Área de Urbanismo, Obras y Servicios, en virtud de Delegación otorgada por Decreto de la Alcaldía número 4.242, de fecha 22 de junio de 2007, Joseba Arregui

(II-5850)

### ANUNCIO

El Pleno del Ilustre Ayuntamiento de Getxo, en sesión ordinaria celebrada el día 26 de junio de 2009, adoptó entre otros, el siguiente acuerdo:

«*Primero:* Resolver las sugerencias formuladas frente al acuerdo plenario número 47, adoptado el 27.03.09, por el que fue aprobada inicialmente la nueva Ordenanza municipal reguladora de la instalación de terrazas y barras en espacios de uso público, en los términos expuestos en los “considerandos” precedentes.

De este modo, se estima parcialmente la formulada por Getxo Empresarial y Comercial, para que el artículo 11.2 fije la anchura total mínima de calle en 6 mts en lugar de los 8 inicialmente previstos, desestimándose en todo lo demás.

*Segundo:* Aprobar definitivamente la nueva Ordenanza municipal reguladora de la instalación de terrazas y barras en espacios de uso público, con las correcciones derivadas de la resolución de las sugerencias a que se refiere el apartado precedente y la reconsideración de la altura prevista en los artículos 5.1 y 8.4, que queda fijada en 1,70 mts. en lugar de los 1,50 mts inicialmente previstos.

*Tercero:* Publicar este acuerdo, junto con el texto íntegro de la ordenanza, en el «Boletín Oficial de Bizkaia», debiéndoles ser notificado a quienes formularon sugerencias.

*Cuarto:* Se hace constar de forma expresa que la Ordenanza que se aprueba, una vez haya entrado en vigor, sustituye plenamente a la que fuera aprobada definitivamente en sesión plenaria de 23.03.05, que quedaría derogada.»

### ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA INSTALACIÓN DE TERRAZAS Y BARRAS EN ESPACIOS DE USO PÚBLICO

#### PREÁMBULO

La finalidad de esta nueva Ordenanza se enmarca dentro del objetivo de impulsar iniciativas concretas que redunden en el desarrollo de una mayor actividad en el ámbito urbano de nuestros barrios, a fin de propiciar un mayor dinamismo económico y, paralelamente, tratando de ordenar los espacios públicos y su urbanísimo de manera armónica y equilibrada.

Se trata, en definitiva, de propiciar de manera ordenada un Getxo más amable, práctico y acogedor para la ciudadanía, buscando el disfrute, aprovechamiento y activación de nuestros barrios también en invierno a través de la instalación de terrazas de hostelería cubiertas en los espacios estratégicos del municipio.

Con esta nueva ordenanza se pretende contribuir, junto con otras medidas, a la revitalización de nuestros núcleos urbanos, estableciendo una serie de medidas tendentes a buscar un aprovechamiento sostenible de los espacios públicos.

Como resumen, la pretensión es distribuir el espacio peatonal y público, adecuar la estética de las instalaciones al entorno

rura egokitzea da, Getxoko hirigunea erakargarritasun bereziz hornituz eta bisitariak eta bertoko biztanleriak hautematen duten kalitatea hobetu eta espazio publikoetako girotzean begi-inpaktu handidun instalazio hauek berezko nortasunez hornituz.

## I. TITULUA

### ORDENANTZAREN EZARPENA HELBURUA, IZAERA, EREMUA ETA BAZTERKETAK

#### 1. Artikulua.—*Helburua*

1. Ordenantza honen helburua bide publikoan edo erabilera publikoa duten espazio pribatueta terraza edo instalazio osagarriak jartzeko erregimen juridiko eta tekniko xedatzea da, honako hauek xedatutakoaren babesean: Tokiko Araubideko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985eko Legea; Hirigintzako Diziplinaren Araubidea onetsi zuen ekainaren 23ko 2187/1978 Errege Dekretua; Irisgarritasuna sustatzen duen EAeko abenduaren 4ko 20/1997 Legea; eta 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoan, eta abarren irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onesten dituenak.

2. Aurreko atalean aipatutakoaren eraginetarako, terrazak hauek izango dira: ostalaritzaren adarrean edo beren lizentzian ostalaritzako erabilera duten alderdi politikoan egoitza sozialetan, legeztatutako jardueraren behin behineko osagarri bezala erabili daitezkeen mahai altu edo baxu, mahai bezala jarritako upel, aulki, aulkitxo eta behin-behineko instalazio mugikorren (finkoak ez direnak eta erraz desmuntatu daitezkeenak) multzoak.

3. Eragin berberetarako, kanpoko barrak eta antzekoak, orokorrean, jaiak direla-eta, establezimendu publikoan kanpoaldean jar daitezkeen behin-behineko instalazio bezala ulertuko dira.

#### 2. Artikulua.—*Izaera juridikoa*

Bide publikoaren okupazioak eta aprobetxamenduak edozeinentzako erabilera bereziko kategoria juridikoa dute, eta jabetza eskubiderik gabe eta beste kalterik egin gabe ematen dira. Horiek erabiltzeko, aurrez, udalaren lizentzia behar da. Lizentzia ordenantza honetan ezarritakoaren arabera emango da.

Gainera, prekarioan emandakoak dira eta interes publikoagatik ezeztagarriak dira kalte-ordainerako eskubiderik gabe.

Partikularrak ez du baimena emateagatik eskubiderik edukiko, beraz, baimena ematea eskatu ahalakoa da hartzen den ebazpenaren beharrezko justifikazioari kalterik egin gabe.

Baimendu daitezkeen bide publikoaren okupazio-aldiak Udalak antolatutako jarduera turistiko edo jai-jarduerak edo lan edota jarduera publikoak egiteko aldatu ahal izango dira; halaber, beste interesdun batzuek dituzten eskubideei dagozkien jarduerak burutu behar badituzte eta horien baimena administrazio honi badagokio ere aldatu ahal izango dira.

#### 3. Artikulua.—*Eremua*

1. Ordenantza hau erabilera publikoa duten espazio guztiei aplika dakieke (bide publikoa, espazio libreak, berdeguneak, etab.), bai titulartasun publikodunei, bai titulartasun pribatudunei. Erabilera publikoaren izaera, izatezko egoerak nahiz indarreko plangintzaren zehaztapenen aplikazioaren arabera zehaztuko da.

2. Udalerriko jaietan zehar baimendu daitezkeen kanpoko barreire ordenantza hau aplikatuko zaie eta zehazkiago III. Tituluan xedatutakoa, nahiz eta jartzeko egutegia, ordutegia eta baldintzak Dekretu bidez urtero xedatu ahal izan, egoera edo behar zehatzak kontuan harturik.

#### 4. Artikulua.—*Bazterketak*

Araudi hau ezin izango zaie aplikatu 1. artikuluan aipatutako definizioaren barnean egon arren, beren erabilera egiaztatzen duen dagokion lizentziaren babesean egindako jardueren osagarriak diren instalazioei.

de sus emplazamientos dotando de un atractivo singular el espacio urbano de Getxo y mejorando la calidad general percibida por el visitante y la población local y dotando de personalidad propia estas instalaciones de gran impacto visual en la ambientación de los espacios públicos.

## TITULO I

### DE LA APLICACIÓN DE LA ORDENANZA OBJETO, NATURALEZA, ÁMBITO Y EXCLUSIONES

#### Artículo 1.—*Objeto*

1. Es objeto de esta Ordenanza establecer el régimen jurídico y técnico de la instalación en vía pública o en espacios privados de uso público de terrazas e instalaciones complementarias al amparo de lo dispuesto en la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, Real Decreto 2187/1978, de 23 de junio por el que se aprueba el Reglamento de Disciplina Urbanística, Ley 20/1997, de 4 de diciembre, del País Vasco sobre promoción de la accesibilidad y el Decreto 68/2000, de 11 de abril, por el que se aprueban las normas técnicas de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, etc.

2. A los efectos de lo señalado en el apartado anterior, se entienden como terrazas el conjunto de mesas altas o bajas, barriles a modo de mesa, sillas, taburetes e instalaciones provisionales móviles (entendidas como no fijas y fácilmente desmontables), que sirvan de complemento temporal a una actividad legalizada en el ramo de la hostelería o sedes sociales de partidos políticos que tenga incluido el uso hostelero en su licencia.

3. A los mismos efectos, se entienden como barras exteriores y similares las instalaciones temporales que, generalmente con motivo de fiestas, se permite colocar en el exterior de establecimientos públicos.

#### Artículo 2.—*Naturaleza jurídica*

Las ocupaciones y aprovechamientos de la vía pública tienen la categoría jurídica de uso común especial y se otorgan salvo el derecho de propiedad y sin perjuicio de tercero y requieren para su ejercicio licencia previa municipal que se concederá de acuerdo con lo previsto en la presente ordenanza.

Se entienden, además, otorgadas en precario y son revocables por razones de interés público sin derecho a indemnización.

El particular no ostenta derecho alguno a la concesión de la autorización, por lo que su otorgamiento es discrecional sin perjuicio de la necesaria justificación de la resolución que se adopte.

Los periodos de ocupación de suelo público que pudieran autorizarse podrán verse modificados con ocasión de la realización de actividades turísticas o festivas, realización de obras y/o actividades públicas organizadas por el Ayuntamiento; asimismo, podrán verse modificadas si resultase precisa la realización de actividades por otros interesados correspondientes a derechos que ostenten cuya autorización corresponda a esta administración.

#### Artículo 3.—*Ámbito*

1. La presente Ordenanza es aplicable a todos los espacios (vía pública, espacios libres, zonas verdes, etc.) de uso público, sean de titularidad pública o privada. La condición de uso público vendrá determinada en función tanto de la situación de hecho, como por aplicación de las determinaciones del planeamiento vigente.

2. A las barras exteriores que pudieran autorizarse durante las fiestas del Municipio, les será igualmente de aplicación la presente Ordenanza y en concreto lo establecido en su Título III, aún cuando el calendario, horarios y demás requisitos de su instalación puedan establecerse anualmente mediante Decreto, en atención a circunstancias o necesidades específicas que hayan de tenerse en cuenta.

#### Artículo 4.—*Exclusiones*

Esta Normativa no será de aplicación a aquellas instalaciones que, aun incluidas en la definición formulada en el artículo 1, sean complementarias de actividades desarrolladas al amparo de la correspondiente licencia que legitime su ejercicio.

## II. TITULUA TERRAZAK JARTZEA

### I. ATALBURUA JARTZEKO BALDINTZAK

#### 5. Artikulua.—*Jartzeko baldintza orokorrak*

1. Arau orokor gisa, 1,70 metrotarainoko altuera duten mahai, aulki, eguzkitako, paperontzi eta alboko babesak eta ordenantza honetan deskribatutako ezaugarriak dituzten estaldurak bakarrik onartuko dira.

2. Ezin izango dira berariaz onartutakoak ez diren instalazioak jarri, eta beren tamainari arreta berezia eskainiko zaio.

3. Debekatua dago establezimendu hauei lotutako instalazioak jartzea: ikuskizun-aretoak, eta zine-aretoak, jai-aretoak, joko-aretoak eta billarrak, txokoak eta elkarte gastronomikoak.

4. Debekatua dago, baita ere, bide publikoan terraza-instalazioaren zerbitzuak justifikatutako elementu hauek jartzea:

- Ura, saneamendu edota elektrizitatearen hornidurarako elementuak.
- Edozein produktu mota saltzen duten makinak eta edari edota elikagaiak prestatzeko instalazio osagarriak.
- Irudia edota soinua erreproduzitzeko gailuak, hala nola, musika-ekipoa, bozgorailuak, telebistak edo beste edozein motatako gailuak (informatika-ekipoak, karaokeak, etab.).

5. Instalazioak, beti, eta edozelan ere, oinezkoentzako gutxienez bi (2) metrotako trabarik gabeko bidea bermatu beharko du fatxadaren ondoan. Ezin izango da terrazarik jarri oinezkoentzako pasabideen aurrean, jendearentzako lokalen larrialdi-irteeren aurrean, pasabideen aurrean, garraio publikoaren geltokien aurrean, etab., Eusko Jaurilaritzaren apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan xedatutako oinezkoen ibilbide irisgarriak babesteko helburuarekin. Salbuespen gisa, Udaleko Zerbitzu Teknikoak irisgarritasun-arauak hobeto bermatzen dituen beste kokaleku baten alde modu arrazoituan agertu ezean.

Oinezkoentzako pasabide hau zabaldu egin ahal izango da, udaleko teknikariak arrazoitutako iritziaren bidez, oinezkoen zirkulazioaren intentsitateagatik beharrezkoa bada.

6. Terrazak gehienez, jardueratik 20 metrotara jarri ahal izango dira, segurtasunagatik terrazak jartzea gomendagarria ez bada.

7. Ezin izango da terrazatzat erabiliko den azalera zati batean edo osorik altxatzen duten edozein taula, oholtza edo plataformarik jarri.

8. Terraza osatzen duten elementu mugikorrek (mahaiak, aulkiak, etab) ez dute, inola ere, hiri-altzari publikoen erabilera oztopatuko (eserlekuak, paperontziak, barandak, etab...) erabiliko ez duten oinezkoen aldetik.

9. Alboko babes, mahai, aulki, eta abarrek ezin izango dute jarduerarenak ez diren publizitate-mezurik eduki, bai ordea jardueraren titularraren izena. Babes hauek ez dira inola ere, oinezkoentzako arriskutsuak izango, ez dute ezta ere, titulartasun publiko edo pribatua duen bidean kalte edo aldaketarik eragingo.

10. Oinezkoentzako eremu, plaza eta espazio libre berezi bakoitzean altzari berdinarik jarri beharko dira terraza guztientzako, instalazioa osotasunean aztertuz, eta harmonia estetikodun baldintza zehatzekin.

Horretarako, eragiten dien ostalaritzako establezimenduek modu indibidualean edo taldean, Udalaren aurrean beren kokapen-eremuari dagozkien proposamena edo proposamenak aurkeztu beharko dituzte. Eta Udala izango da aipatutakoekin adostasunean, interes orokorrenzako egokiena aukeratuko duena

Dena den, adostasunik ez badago, Udalak edukiko du hiri-altzarietzako baldintza tekniko eta estetiko egokienak erabakitzeke eskumena.

## TITULO II DE LA INSTALACIÓN DE LAS TERRAZAS

### CAPITULO I CONDICIONES DE LA INSTALACIÓN

#### Artículo 5.—*Condiciones generales de la instalación*

1. Como norma general sólo se admitirá la instalación de mesas, sillas, sombrillas, papeleras y protecciones laterales móviles de hasta 1,70 metros de altura y cubriciones con las características descritas en la presente ordenanza.

2. No podrán realizarse instalaciones distintas de las expresamente autorizadas, prestando especial atención a sus dimensiones.

3. Queda prohibida la instalación de terrazas vinculadas a los siguientes establecimientos: salas de espectáculos y cines, salas de fiestas, sala de juegos y billares, txokos, y sociedades.

4. Queda igualmente prohibida la instalación en vía pública justificada en el servicio de la instalación de terraza de los siguientes elementos:

- Acometidas de suministro de agua, saneamiento y/o electricidad.
- Máquinas expendedoras de cualquier clase de producto y las instalaciones auxiliares de preparación de bebidas y/o comidas.
- Instalaciones de aparatos reproductores de imagen y/o sonido, tales como equipos de música, altavoces, televisores o de cualquier otra índole (equipos informáticos, karaokes, etc.).

5. La instalación deberá garantizar, permanentemente y en todo caso, un paso peatonal mínimo y libre de cualquier obstáculo de dos (2) metros junto a la fachada, no pudiéndose instalar terrazas frente a pasos de peatones, salidas de emergencia de locales de pública concurrencia, a vados, paradas de transporte público, etc., a los efectos de preservar los itinerarios peatonales accesibles establecidos en el Decreto 68/2000 de 11 de abril del Gobierno Vasco, salvo que, excepcionalmente, por los Servicios Técnicos Municipales se informe favorablemente y de forma motivada de otra opción de colocación que mejor garantice las normas de accesibilidad.

Este paso peatonal puede ser ampliado a juicio razonado del técnico municipal cuando lo requiera la intensidad del tráfico de viandantes.

6. Las terrazas podrán instalarse a una distancia máxima de 20 mts de la actividad, salvo que por motivos de seguridad sea desaconsejable su implantación.

7. No podrá colocarse ningún tipo de estrados, tarimas, plataformas que eleven en parte o en la totalidad la superficie destinada a las terrazas.

8. Los elementos móviles que componen la terraza (mesas, sillas, etc...) en ningún caso obstaculizarán la utilización del mobiliario público urbano (bancos, papeleras, barandillas, etc...) por parte de viandantes que no vayan a hacer uso de la misma.

9. Las protecciones laterales, mesas, sillas, etc. no podrán contener mensajes publicitarios ajenos a la actividad, pero si el nombre del titular de la actividad. Estas protecciones nunca podrán suponer riesgo alguno para los peatones, ni daño o alteración en la vía de titularidad pública o privada.

10. En cada una de las Áreas Peatonales, Plazas y Espacios Libres singulares habrá de instalarse un mobiliario uniforme para todas las terrazas, estudiando la instalación conjuntamente y con condiciones específicas de armonía estética.

A tal efecto, los establecimientos hosteleros afectados deberán presentar, de forma individual o conjunta, la propuesta o propuestas concernientes a su zona de ubicación ante el Ayuntamiento, que será quien de mutuo acuerdo con los citados decidirá lo más adecuado a los intereses generales.

En todo caso y de no producirse dicho acuerdo, el Ayuntamiento tendrá la facultad de decidir las condiciones técnicas y estéticas más apropiadas para el citado mobiliario urbano.

11. Mahaiak, aulkiak, eguzkitakoak etab., jartzeko eremuen mugak udalak finkatuko ditu, lurreen egindako marken bidez, terrazaren azalera osoa marka horietan kokatuz.

12. Ezin izango da, inola ere, bide publikoa aulki, mahai, eguzkitako edo terrazako beste edozein elementuren pilaz okupatu, ageriko ezinezkotasuna edo berariazko Udalaren baimena eduki ezean.

13. Berariaz debekutzen da, instalazioa edozein albotatik osorik ixtea. Alboko babesak ordenantza honen 8. artikuluan xedatutakoaren arabera gauzatuko dira.

14. Eduki ditzaketen estalgarrien hegala eta bermatzeko oinarria, terrazak okupatzen duen azaleraren barnean egongo dira, eta ahal bada, kolore neutroak izango dituzte.

15. Debekatua dago itxitura, eguzkitako, mahai, aulki edo instalazioa osatzen duten beste edozein elementutan lagin, publizitate, edo iragarkiak inprimatu edo erabiltzea.

16. Ezin izango dira udalaren ondasun, lan edo zerbitzuak eragin. Behin terraza kendu ostean, instalazioak zoladura kaltetu badu, astebeteko gehienezko epean berri beharko da.

17. Terrazak okupatutako bide publiko eta espaloiak beti garbi mantendu beharko dira. Espazio horren garbiketa baimenaren titulari dagokio. Instalazioko elementuen mantenamendu falta edo apaingarri- eta garbitasun-baldintzen hondatzeak baimena kentzea ekarriko du, eta ondorioz, instalazioaren kentzea. Aipatutako baldintzak mantentzeak bere elementu guztiak barne hartzen ditu eta elementuek beti kontserbazio-egoera eta garbitasun-egoera egokia izan beharko dute.

#### 6. Artikulua.—ingurutatuko egitura bidezko estaldurak

1. Ordenantza honetako aurreko artikuluen arabera mugatutako espazioa behin-behineko elementuez estali ahal izango da, erraz desmuntatu daitezkeenak, eta espaloiaren gainean ainguratuak. Gainera, estaldurek ezaugarri hauek bete beharko dituzte:

- Arau orokor gisa, luzera-garapenaren bost (5) metroko, bi zutiko edo oinarri edukiko dituzte (gutxi gorabehera, modeloen arabera);
- Edozein zutiko eta espaloiaren kanpoaldeko ertzaren arteko tartea ez da hogeita hamar (30) zentimetro baino gutxiagokoa izango, babes-baranda dagoenean izan ezik, orduan, tartea hamar (10) zentimetrotara murriztu ahal izango da;
- Estaldura-instalazioan, edozein irtenguneren behealdeko ertzek berrehun eta hogeita (220) zentimetroko altuera gainditu beharko dute eta
- Instalazioaren alboko babesak ordenantza honen 8. artikuluan xedatutakoa aintzat hartuko dute.

2. Estaldurek gainera, diseinu ireki berezia edukiko dute. Horietan, ikuspegiaren iragazkortasunak lehenetsuna izan beharko du, hiriaren hautemateari traba egin gabe eta euskailu trinko gisa jardun gabe. Egiturazko elementuak ahal bada, altzairuzkoak (herdoilgaitza, galdaketa...) izango dira, eta pinturazko akabera badute, hau oxidon motakoa edo gainerako hiri-altzariei esleitutakoa izango da. Horretarako, eskaeran dagokion instalazio-proiektua eta eragina balioztatzeko beharrezko infografiak sartu beharko dira.

3. Udal-agintaritzak eskumendunak estaldura-eskaera ukatu ahal izango du ondoko kasu hauetan:

- bide-segurtasunerako kaltegarriak direnean (ikuspena gutxitzea edo gidarientzako distrakzioa etab.) edo oinezkoen trafikoa nabarmenki zailtzen duenean;
- Hurreko eraikin eta lokalei eragin diezaienenean (industriaketa, etab.) edo
- inguruarekin argi eta garbi ezegokia denean edo bat ez datorrenean edo hiri-paisaia egoki ikustea zailtzen duenean.

11. Los límites de las zonas destinadas a la colocación de mesas, sillas, sombrillas etc, serán delimitados por el Ayuntamiento mediante marcas en el suelo encuadrando la superficie completa de la terraza.

12. En ningún caso podrá ocuparse la vía pública con pilas de sillas, mesas, sombrillas o cualquier otro elemento auxiliar de la terraza, salvo imposibilidad manifiesta y autorización municipal expresa.

13. Se prohíbe expresamente el cierre completo de la instalación en cualquiera de los laterales de la misma. Las protecciones laterales se realizarán conforme a lo dispuesto en el artículo 8 de la presente ordenanza.

14. Tanto el vuelo como el pie de apoyo de las posibles cubriciones utilizadas quedarán dentro de la superficie que ocupe la terraza y serán preferentemente de colores neutros.

15. Queda prohibida la impresión o utilización de muestras, publicidad o anuncios en mamparas, sombrillas, mesas, sillas o cualquier otro elemento que forme parte de la instalación.

16. No podrán afectarse bienes, obras o servicios municipales. Una vez retirada la terraza, si hubiese resultado afectado el pavimento por la instalación, deberá reponerse en un plazo máximo de una semana.

17. La vía pública y aceras ocupadas por la terraza deberán mantenerse en permanente estado de limpieza correspondiendo al titular de la autorización la limpieza de la superficie ocupada. La falta de mantenimiento de los elementos de la instalación o el deterioro en las condiciones de ornato y limpieza implicará la retirada de la autorización y, en consecuencia, de la instalación. El mantenimiento de las condiciones citadas alcanza a todos sus elementos que deberán presentar en todo momento un adecuado estado de conservación y limpieza.

#### Artículo 6.—Cubriciones mediante estructuras ancladas

1. El espacio delimitado conforme a los artículos anteriores de la presente Ordenanza, podrá cubrirse con elementos de carácter provisional, fácilmente desmontables, y anclados sobre la acera, que reúnan además los requisitos siguientes:

- Como norma general poseerán dos pies derechos o soportes por cada cinco (5) metros de desarrollo longitudinal (de manera aproximada dependiendo de los modelos);
- La distancia entre cualquier pie derecho y la arista exterior del borde de la acera, no será inferior a treinta (30) centímetros, salvo cuando exista barandilla de protección, en cuyo caso podrá reducirse a diez (10) centímetros de ésta;
- El borde inferior de cualquier elemento saliente en la instalación de la cubrición, deberá superar la altura de doscientos veinte (220) centímetros y
- Las protecciones laterales de la instalación atenderán a lo dispuesto en el artículo 8 de la presente Ordenanza.

2. Las cubriciones presentarán además un diseño singular abierto, en el que habrá de primar la permeabilidad de vistas sin que supongan obstáculo a la percepción de la ciudad ni operen a modo de contenedor compacto. Los elementos estructurales serán preferentemente de acero (inoxidable, fundición...), y en el supuesto de acabado en pintura éste será del tipo oxidón o del asignado para el resto del mobiliario urbano de la ciudad. Para ello la solicitud deberá incluir el correspondiente proyecto de instalación y las infografías necesarias para evaluar el impacto.

3. La Autoridad Municipal competente podrá denegar la solicitud de cubrición en cualquiera de los supuestos siguientes:

- cuando supongan algún perjuicio para la seguridad vial (disminución de la visibilidad, o distracción para los conductores etc.) o dificulte sensiblemente el tráfico de peatones;
- cuando pueda afectar a la seguridad de los edificios y locales próximos, (evacuación, etc.); o
- cuando resulte formalmente inadecuada o discordante con su entorno, o dificulte la correcta lectura del paisaje urbano.

4. Hala ere, oro har, aipatutako ezaugarriez gain, beste aukera batzuk aurkezteko aukera egongo da eta aurkeztutako aukera hauek Udal-agintaritzak aztertuko ditu.

#### 7. Artikulua.—Luzera

Instalazioaren gehienezko luzerak, alboko babesak (eta, baleude, jardinerak) barne, ez du jarduera nagusiaren euskarri den establezimenduaren fatxadaren aurrealdeko luzera gaindituko, bere alboko establezimenduen baimen idatzia eduki ezean, eta inola ere ezin izango ditu hamabi metroak (12 m) gainditu. Atalburu honen 1., 2. eta 3. ataletan azaltzen diren kasuak arau zehatzek zuzenduta egongo dira.

#### 8. Artikulua.—Alboko babesak

1. Instalazioak okupatzen duen eremua esparrua mugatzen duten eta itsueli oztopoak identifikatzea ahalbidetuko dien alboko babesek mugatua egon beharko da.

2. Alboko babes hauek mugikorak eta inguruaren baldintzetara egokituak izango dira beti. Terraza mugatzeko landaredun loreontzi-euskarriak onartu ahal izango dira, oinarri nahiko egonkor eta sendoa dutenak, beren egonkortasuna bermatzeko. Elementu zeharraz geroz eraikitako itxiturek beren existentzia ikusmenaren bidez identifikatzeko elementuak eduki beharko dituzte.

3. Alboko mugaketa barkatu ahal izango da, instalazioa funtzio hau egoki betetzen duten eta aurreko ataletako baldintzak betetzen dituzten hiri-altzarien artean dagoenean, hala nola jardinerak, etab...

4. Ezin izango dute dagokien instalazioaren baimendutako zabalera gainditu eta beren altuera ez da izango zero eta laurogei (0,80) metro baino gutxiagokoa eta bat eta hirurogeita hamar (1,70) metro baino gehiagokoa izango da eta terrazak betetzen duen espazioaren alboetan edo atzealdean jarri ahal izango dira, ostalaritza-jarduera barne hartzen duen lokaletik hurbilen dagoen terrazaren aurrealdea beti libre utziz.

#### 9. Artikulua.—Interés publiko edota bide-segurtasunarengatikok debekua

Udal-agintaritza eskumendunak, halaber, terrazak eta bere elementu osagarriak jartzea debekatu ahal izango du, interes publikoak horrela eskatzen duenean, diseinua, egoera, bide-segurtasuna, herri-lanak edo lan pribatuak, oinezko gehiegi biltzea, ikuspena edo irisgarritasunagatik edo antzeko beste edozein baldintzagatik. Debekua behar bezala jarri beharko da.

#### 1. ATALA

### IBILGAILUEN ZIRKULAZIOA DUTEN KALEETAKO ESPALOIETAN JARTZEA

#### 10. Artikulua.—Okupazioa

Aurreko artikuluetan aipatutako mugaketa orokorreki kalterik egin gabe, terrazak okupazio-baldintza hauetan oinarritu beharko dira, terrazen jabetza duten lokalaren egoeraren arabera:

- Ezin izango dira jarri hiru metro eta erdi (3,50 m) baino gutxiagoko zabalera duten espaloietan, fatxadaren alboan gutxienez oztoporik gabeko bi (2) metroko pasabidea izan dezan, ezta oinezkoentzako pasagune, ibilgailuen pasabide, jendearentzako lokalen larrialdi-irteeren aurrean, garraio publikoaren geltokien aurrean, etab., Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan xedatutako oinezkoen ibilbide irisgarriak babesteko helburuarekin.

Halaber, arreta berezia jarriko da Udalaren ekintza-plan eta oztopo arkitektonikoak kentzeko planean xedatutako ibilbide irisgarriak errespetatzean edo geroago horrelakotzat zehaztuko direnetan.

- Oinezkoentzako pasagune libre udal-teknikariaren iritziz arrazoituaren bidez zabaldu ahal izango da, oinezkoen zirkulazioaren intentsitateak eskatzen duenean.

4. No obstante, cabrá la posibilidad de presentación de otras alternativas con diferentes características a las indicadas con carácter general y que serán estudiadas por la Autoridad Municipal.

#### Artículo 7.—Desarrollo longitudinal

El desarrollo longitudinal máximo de la instalación, incluidas protecciones laterales y, en su caso, jardineras, no rebasará la longitud del frente de una fachada del establecimiento soporte de la actividad principal, salvo que se incluya la autorización por escrito de los establecimientos colindantes de la misma, no pudiendo en ningún caso rebasar los doce metros (12 m). Los supuestos contemplados en las Secciones 1.<sup>a</sup>, 2.<sup>a</sup>, 3.<sup>a</sup> del presente Capítulo se regirán por sus normas específicas.

#### Artículo 8.—Protecciones laterales

1. El área ocupada por la instalación deberá quedar delimitada por protecciones laterales que acoten el recinto, y permitan identificar el obstáculo a los invidentes.

2. Estas protecciones laterales serán móviles y adecuadas, en todo caso, a las condiciones del entorno, pudiéndose admitir maceteros con plantas como elementos delimitadores de la terraza, con una base lo suficientemente estable y consistente para garantizar su estabilidad. Las mamparas construidas a base de elementos traslúcidos deberán disponer de elementos que identifiquen visualmente la existencia de la misma.

3. Podrá dispensarse de la acotación lateral en el caso de que la instalación se sitúe entre elementos de mobiliario urbano que realicen convenientemente esta función, tales como jardineras, etc... que cumplan las condiciones de los apartados anteriores.

4. No podrán rebasar el ancho autorizado de la instalación correspondiente, y su altura no será inferior a cero con ochenta (0,80) metros ni superior a uno con setenta (1,70) metros y podrán colocarse en los laterales y la parte posterior del espacio ocupado por la terraza, dejando siempre libre el frente de la terraza más próximo al local que albergue la actividad hostelera.

#### Artículo 9.—Prohibición por razones de interés público y/o Seguridad Vial

La Autoridad Municipal competente podrá así mismo prohibir la instalación de terrazas y sus elementos auxiliares, en aquellos casos en que así lo exija el interés público, por razón de trazado, situación, seguridad vial, obras públicas o privadas, afluencia masiva de peatones, visibilidad o accesibilidad o cualesquiera otras circunstancias similares, debiendo fundamentarse debidamente dicha prohibición.

#### SECCIÓN 1.<sup>A</sup>

### INSTALACIONES EN ACERAS DE CALLES CON CIRCULACIÓN RODADA

#### Artículo 10.—Ocupación

Sin perjuicio de las limitaciones generales recogidas en los artículos anteriores, las terrazas se sujetarán a las siguientes condiciones de ocupación en función de la situación del local al que pertenezcan:

- No podrán colocarse en aceras que tengan una anchura inferior a tres metros y medio (3,50 m), para permitir un paso mínimo libre de obstáculos de dos (2) metros junto a fachada, ni frente a pasos de peatones, vados de vehículos, salidas de emergencia de locales de pública concurrencia ni a paradas de transporte público a los efectos de preservar los itinerarios peatonales accesibles establecidos en el Decreto 68/2000 de 11 de abril del Gobierno Vasco.

Asimismo, se tendrá especial cuidado en respetar los itinerarios accesibles establecidos desde el plan de actuación y supresión de barreras arquitectónicas del Ayuntamiento o aquellos que se determinen posteriormente como tales.

- El paso peatonal libre podrá ser ampliado a juicio razonado del técnico municipal, cuando lo requiera la intensidad del tráfico de viandantes.

- c) Sei (6) metro edo gehiagoko espaloi-zabalera duten kaleetan, instalazioaren zabalera ezin izango da lau (4) metro baino gehiagokoa izan, titulu honetako I. atalburuan xedatutako mugei kasurik egin gabe;
- d) Instalazioa 8. artikuluan xedatutakoaren arabera babestu eta mugatuko da.
- e) Terrazen eskaera bakoitzarekin, berariaz, jarduera nagusiaren ingurukoek sinatutako urteko baimena gehituko da, instalazioak albokoaren edozein fatxadari aurrea ematen dionean.
- f) Lokal, atari, pasabide, garraio publikoen geltoki eta abarretarako irisgarritasuna beti ziurtatuta egongo da.

## 2. ATALA

## OINEZKOEN EREMUETAN JARTZEA

**11. Artikulua.—Okupazioa**

Atalburu honetan aipatutako mugaketa orokorrei kalterik egin gabe, terrazak okupazio-baldintza hauetan oinarritu beharko dira, terrazen jabetza duten lokalaren egoeraren arabera:

1. Gutxienez bost (5) metro dituzten oinezkoentzako kaleetan, mahaien lerro bateko instalazioa jarri ahal izango da, fatxada eta terrazaren arteko tartean, derrigorrez, igarotzeko bi (2) metro libre utziz, salbuespen gisa, Udaleko Zerbitzu Teknikoen txostenaren aurretik, Udal-agintaritzak, era arrazoituan, irisgarritasun-arauak hobeto bermatzen dituen kokatzeko beste aukera baten aldeko txostena eman ezea
